

Naroa Aramburu Azpiazu

A maila • 2 saria

Ni, Naroa Aramburu Azpiazu, 2005eko apirilaren 26an jaio nintzen, eta beasaindarra naiz. Txindoki institutuan lehenengo batxilergoa egiten ari naiz, gizarte-zientziak arloan. Txikitatik izan dut idazteko zaletasuna, baita kirola eta dantza egitekoa ere. Hondartza eta mendia ditut gustoko eta batez ere lagunekin eta familiarekin planak egitea. Nire idazlana irakurtzen gozatzea espero dut!



MAITASUNEZKO BESTE ISTORIO BAT

Beste gau bat, ez gainontzekoen oso ezberdina. Goizeko hirurak eta laurden, denak lo, eta Eukene niri deika. Komuneko bainuontziaren ertzean zegoen eserita, bi ukondoak belauten gainean eta eskuak buruaren atzean zituela eta burua lurrera zuzen-zuzenean begira. Egun hartan ere dardarka, negarrez, zaratarik ez egin nahian. Gero, ohi bezala, bere aitaren bizarxafla hartu eta pare bat minutuz honi eta bere besaurreari begira egon zen. Bere buruari behin eta berriro zin egin zion ez zuela berriro egingo, ez zidala berriro deituko, baina gauero hausten zuen agindutakoa. Baita gau hartan ere.

Eukene Bizkaiko herri txiki batean bizi zen bere guraso eta ahizpa Mainerrekin. 15 urte zituen, eta bere logelan sartuta pasatzen zituen egunak, tarteka sukaldara zerbait jateko soilik ateratzen zela. Horrelakoetan, pare bat ogi zati edo gaileta hartu eta berriro ere bere kobazuloan sartzen zen. Garai batean ateratzen zen kalera, Mikelekin zebilenean, bere mutil-lagunarekin. Hala ere, dena aldatu zen Mikel alboko herriko neska batekin zebilela jakin zuenean. Bihotza hautsi zion horrek, eta ordutik ez zen berriro lehen zen neska izan. Izateko modua aldatzeaz gain, itxura fisikoa ere aldatu zuen; ilea beltzez tindatu zuen, hiru edo lau “piercing” egin eta egunero makillaje ilun batez margotzen zuen bere aurpegi ederra. Soinekoak eta abar ere ez zituen ikusi ere egin nahi; beti kamiseta “oversize” beltzak eta praka zabalak zituen soinean. Honi dagokionez, liskar sakon bat izan zuen haren gurasoekin bere lehengusina Ireneren jaunartzera joan behar zenean. Hauek arropa dotorea jantzi behar zuela agindu zioten, baina Eukenek ez zuen jaunartzera joan ere egin nahi. Azkenean, ez oso pozik, baina konforme, alkandora beltz bat eta praka bakero urdin argiak jantzi zituen.

Bere ahizpa Mainerrek ordea, oso gustuko zuen soinekoak eta bere amaren takoidun zapatak janztea. Makilatzea ere asko gustatzen zitzaion, printzesa bat bezala sentitzen baitzen. Handitan bere printze urdinarekin ezkondu eta haren gaztelu erraldoiean biziko zela esaten zien gurasoei, eta hauek beti irribarre egiten zioten. Mainerrek 5 urte zituen, eta beti izaten zuen bere ahizpa nagusiarekin egoteko gogo, eta berekin jolasteko eskatzen zion egunero. Eukenek noizbehinka baietz esaten zion eta harekin ibiltzen zen karta-jokoan edo. Niri izugarri

gustatzen zitzaizkidan momentu haiek, non Maider oso zoriontsu zegoen, eta Eukenek bera ere hala zegoela irudikatzeko irribarre faltsua marrazten zuen aurpegian. Nik banekien ordea, Eukene nigan pentsatzen egoten zela uneoro. Hala ere, niri bera ez zitzaidan batere gustatzen, bere ahizpa baizik. Hark bazuen zerbait berezia; Maider oso osasuntsu jaio zen itxuraz, baina hazten joan zen

heinean, oso nekatuta egoten zela eta jateko gogorik izaten ez zuela ikusi zuten. Egun batean, medikuarengana eraman zuten umea, zerbait izango ote zuenaren beldur, eta milaka frogagabe ondoren, analisisetan leuzemia zuela jakin zuten. Maiderrek lau urte zituen orduan, eta Eukenek bere mutila beste neska harekin zebilela jakin eta handik astebetara gertatu zen. Horrek Eukene lur jota utzi zuen, izan ere, gehien maite zuen pertsona zen Maider, eta ez zuen nahi hura nirekin joaterik. Mila aldiz galdetzen zidan ea zergatik Maider eta ez bera, ea zer egin zezakeen bera izateko eta bere ahizpa txikia sendatzeko, baina ez zuen ulertzen ni Maiderrez eta bere bizitzeko gogoaz nengoela maiteminduta.

Bazekiten Maider sendatu ezin zitekeela, zuen gaixotasuna larriegia baitzen, eta oso garatuta zuen jada. Hala ere, bazuten gaixotasuna denbora batez gelditu zitekeen esperantza txiki bat eta nik, berriz, urte batzuez bakean utziko nuen esperantza. Noizean behin egiten nion bisita etxera, zer moduz zegoen ikusteko, eta beti begirada sendoa batez begiratzen zidan, indarrez, alde egiteko esanez; ez zidala horren erraz eramaten utziko, indarra zuela oraindik eta ez zuela amore emango, baina nik neurea izatea nahi nuen, eta neurea izango zen.

Beti izan didate beldur handia, nahiz eta batzuek deitu egiten didaten, Eukenek esate baterako. Izaki beltz bat bezala irudikatzen naute, maltzurra, mingarria: heriotza. Nik ordea, ez dut uste horren ikaragarria naizenik; ni bizitzaren zati garrantzitsu bat naiz, negatiboa ez balitz, ez litzateke bizitzarik izango. Ni, gizakiak bezala, maitemindu egiten naiz, bai, arimez maitemintzen naiz, eta hauek nirekin eramaten ditut, niretzat izan daitezen betiko.

Ohi bezalako bisitetako batean, Maiderri zirraturik begira ari nintzaion. Hain zen txikia, eta hain zen ahula. Niri indarra zuela erakutsi nahian begiratzen zidan, baina nik banekien ez zuela denbora luzez eutsiko, ezin zuela nire indarrarekin, nire maitasunarekin. Eskutik heldu nion; eskua hotz-hotza zuen eta gogo handiz saiatzen ari zela nabari nezakeen. Maiderrek ez zuen nirekin etorri nahi, ez, bizi egin nahi zuen, zahartu arte. Bizitza osoa zuen aurretik, eta haztean zer sentitzen den jakin nahi zuen. 5 urte besterik ez zituen, eta azken urtean ezin izan zuen nahi zuen guztia egin gaixo zegoela eta. Nik haren eskua lastantzen jarraitzen nuen, emeki-emeki, baina beste eskutik haren guraso eta ahizpa ikusten nituen tiraka. Haiek ematen zizkien indarrak Maiderri gehituta gehiegi ziren nire aurka. Ez zuten hura askatzeko asmorik, eta egin beharreko guztia egingo zuten berak haiekin jarrai zezan.

Haien indar eta nire gogoen arteko borroka ez zituen pare bat ordu gehiago besterik iraun; nik irabazi nuen. Haiek ez zuten Maiderren eskua askatu, hark haiena baizik. Ezin izan zuen gehiago jasan, gaixotasuna oso zabalduz zegoen haren gorputz txikian, eta nirekin etortzea onartu zuen. Bidean, haren ametsa betetzen saiatu nintzen: bere burua ikusi zuen, urte batzuk zaharragoa, noski, eta soineko luze txuri bat zeraman soinean. Alboan, bere senarra ikusi genuen, bere printze urdina, eta biak haien gazteluko lorategian zeuden eserita. Haren begiradan ikusenez zakeen Maider zein zoriontsu zen. Betiko geratuko ginen gu biok han, bera izango zen nire printzesa eta ni bere printzea.

Bitartean, bere gurasoak Maiderren eskua askatu gabe, Maiderren gaixotasunaren prozesuan lagundu zien medikuari deitu zien. Aldi berean, Eukene, bere ahizpa txikiari begira zegoen, haren aurpegi zuriari begira, ezer esan gabe. Ez zuen malkorik askatu, baina barrutik erabat hautsita zegoen. Ezin zuen ulertu zergatik aukeratu behar izan nuen bere ahizpa eta ez bera.

PROSA

Bere ahizpak bizitzaz gozatu nahi zuen, bizitzaren etapa guztiak bizi, eta zoriontsu izan. Bere ahizpa zoriontsu zen, eta bera ez.

Oso zaila egin zitzaien aurrera ateratzea hirurei, Eukeneri, batez ere. Ez zuen inoiz sinetsi nik inoiz kasurik egin ez nionez haren ahizpa benetan eramango nuenik. Ez zitzaion buruan sartzen zergatik Maider bai eta bera ez. Horregatik, haren ahizpa indarrez borrokatzen ari zen momentu haietan, Eukenek ez zion kasu askorik egin, ez zion asko lagundu. Hori zen orain hain gaizki egotearen arrazoi nagusia; uste zuen, agian hark indar pixka bat gehiago egin izan balu, bere ahizpa oraindik ere haiekin egongo zela, eta ez nire besoen artean.

Gauero eramaten nien Maider lo zeuden bitartean, Haien ametsetan sartzen nuen, une txiki batez haiena ere izan zedin behintzat. Denbora gehiena bere ahizpa nagusiarekin pasatzen zuen. Behin eta berriro errepikatzen zion berak ez zuela errurik, eta benetan maite bazuen, bere orde z bizitzeko eskatzen zion. Lagunekin ateratzeko, hondartzara joateko, dotore prestatzeko eta amatxo eta aitatxo ondo zaintzeko.

Horrelakoetan, Eukenek bere burukoa bustita nabaritzen zuen hurrengo goizean, bere ametsak eragindako malkoen ondorioz. Denborak aurrera egin ahala, bere ahizpa txikiak arrazoia zuela ikasi zuen eta harengatik biziko zela erabaki. Ez zidan inoiz gehiago deitu, eta ez ninduen ikusi ere egin nahi. Orain bere bizitzeko unea iritsi zen, berea eta bere ahizpatxoarena, eta ez zuen inork eragozterik onartuko.